Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2017ko abuztuaren 18a, ostirala — 157 — Viernes, a 18 de agosto de 2017

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## TOLOSAKO UDALA

*Iragarkia*

Udal honetako Udalbatzarrak, 2017ko maiatzaren 30ean egindako ohizko Osoko Bilkuran, Tolosako Udaleko presoen familientzako diru laguntzak arautzen dituen Ordenantzari hasierako onespena eman zion.

Ordenantza hau hogeita hamar laneguneko epean publikoari erakusteko jarri zen, 2017ko ekainaren 13ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratutako iragarkiaren bidez, eta ez zenez aurkeztu interesdun aldetik inolako erreklamaziorik zein iradokizunik, aipatutako ordenantza behin betikoz onartutzat ematen da.

Berez, apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen Legea, iragarki honetan Eranskin gisa argitaratzen da ordenantzaren testu osoa, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN testu osoa argitaratu arte ez dela indarrean sartuko aipatuz.

Administrazio-bidean behin betikoa den akordio honen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietako Salaren aurrean, iragarkia argitaratzen den hurrengo egunetik hasi eta bi hilabeteko epean.

Hala ere, aldez aurreko izaeraz, Udal honen Osoko Bilkuraren aurrean aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, hilabeteko epean, iragarkia argitaratu eta hurrengo egunetik hasita. Kasu honetan ezingo da administrazioarekiko auzietako helegiterik aurkeztu berraztertzeko errekurtsoa erabaki arte edota presuntziozko ezespena eman arte.

Hori guztia egoki irizten diren beste edozein errekurtso jartzeko kalterik gabe.

Tolosa, 2017ko abuztuaren 1a.— Nerea Letamendia Belloso, jarduneko alkatea, (5691)

*Presoen familientzako dirulaguntzak arautzen dituen ordenantza.*

Garraiorako diru-laguntza indibidualak dira, Gipuzkoatik kanpoko espetxeetan dauden presoen senitartekoentzat.

*1. Helburua.*

Araudi honen helburua da arautzea Tolosako Udalak eman ditzakeen diru-laguntzak, bidaia-gastuak subentzionatu ahal izateko Gipuzkoatik kanpoko espetxeetan zigortuta daudenen edo behin-behinean espetxeratuta daudenen senitartekoei, espetxe horietara egin ditzaketen bisitak direla-eta.

*2. Onuradunak.*

Diru-laguntza hauen onuradun izan daitezke espetxeetan zigortuta dauden edo behin-behinean espetxeratuta dauden tolosarren senitartekoak, ondorengo lehentasun-hurrenkera honen arabera:

## AYUNTAMIENTO DE TOLOSA

*Anuncio*

El Pleno de este Ayuntamiento, en sesión ordinaria celebrada el 30 de mayo de 2017, aprobó inicialmente la Ordenanza reguladora de subvenciones a familiares de personas presas del Ayuntamiento de Tolosa.

La mencionada ordenanza fue sometida a exposición pública durante treinta días laborables, mediante anuncio publicado en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa el 13 de junio de 2017, y al no haber sido presentada reclamación o sugerencia alguna por parte de los interesados, la citada ordenanza queda definitivamente aprobada.

En consecuencia, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 70.2 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local, se publica como anexo al presente anuncio el texto completo de la ordenanza, con señalamiento de que entrará en vigor desde su publicación íntegra en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.

Contra el presente acuerdo, que es definitivo en vía administrativa, podrá interponerse en el plazo de dos meses, contados desde el día siguiente a la publicación, Recurso Contencioso-Administrativo ante el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.

Ello no obstante, con carácter previo, podrá interponerse recurso de reposición ante el Pleno de este Ayuntamiento en el plazo de un mes, contado desde el día siguiente al de la publicación del presente anuncio. En ese caso, no podrá presentarse recurso contencioso-administrativo hasta la resolución del recurso de reposición o hasta su desestimación presunta.

Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime procedente.

Tolosa, a 1 de agosto de 2017.— La alcaldesa en funciones, Nerea Letamendia Belloso. (5691)

*Ordenanza reguladora de subvenciones a familiares de personas presas.*

Ayudas económicas individuales de transporte para familiares de personas internas en Centros Penitenciarios fuera de la provincia de Gipuzkoa.

*1. Objeto.*

Es objeto de la presente normativa la regulación de la concesión de ayudas económicas que el Ayuntamiento de Tolosa podrá otorgar para subvencionar los gastos de desplazamiento originados a los/las familiares de personas penadas o en prisión preventiva internas en centros penitenciarios fuera de Gipuzkoa con motivo de las visitas que puedan realizar a las mismas.

*2. Beneficiarios/as.*

Podrán ser beneficiarios/as de estas ayudas los/las familiares de tolosarras que se encuentren penadas o en prisión preventiva en centros penitenciarios, con el siguiente orden de preferencia:

EK\CV GAO-I-2017-05691

— Ezkontidea edo izatezko bikotekidea.

— Seme-alabak.

— Gurasoak.

— Anai-arrebak.

Eskaera egiten duten senitartekoek Tolosan erroldatuta egon behar dute diru-laguntza eskaera egiten dutenean eta bisitak egiten dituztenean.

3. *Baldintzak.*

— Eskatzailea Tolosan erroldatuta egotea.

— Gipuzkoatik kanpo egotea bisitatu behar dutena dagoen espetxea.

— Ez izatea behar adina baliabide ekonomiko. Eskatzailearen familia-unitatearen urteko diru-sarrera guztiek ezin izango dute gainditu honako zenbateko hau: urte horretako Lanbidearteko Gutxieneko Soldataren hileko zenbatekoa bider 4,17 eta 14 hilabete. Gehieneko muga hori ponderatu egingo da familia-unitateko kideen kopuruaren arabera.

— Egiaztatzea senitarteko presoa bisitatu dutela.

4. *Eskaerak aurkeztea: modua, epea eta publizitatea.*

Araudi honetan araututako diru-laguntzak jasotzeko, interesdunek eskaera bete eta aurkeztu beharko dute Tolosako Udaleko Informazio eta Erregistro bulegoan (Udate).

Bai oinarriak, bai eskaera-inprimakiak kontsulta daitezke ondorengo web orrian: www.tolosa.eus.

Inprimaki horri honako agiri hauek erantsi behar zaizkio:

a) Eskatzailearen nortasun agiriaren (NA) fotokopia.

b) Familia-unitateko kide guztien izaera pertsonaleko datuak uzteko baimena. Adin txikikoen kasuan, baimena haren ordezkari legalak sinatu beharko du.

c) Presoarekin duen senidetasunaren edo harremanaren egiaztagiria (familia-liburua, izatezko bikotearen ziurtagiria).

d) Bizikidetza-ziurtagiria, bizikidetza-unitateko kide guztiena.

e) Senitartekoa preso dagoela dioen ziurtagiria, espetxeak emana.

f) Zinpeko aitorpena; hor adierazi behar da beste erakunde batzuetan diru-laguntzarik eskatu den edo ez, edo haietatik diru-laguntzarik jaso den edo ez.

g) Egindako bisiten frogagiriak.

h) Kontu korrontearen edo libretaren zenbakia edo kodea, diru-laguntzaren ordainketa egiteko.

i) Bizikidetza-unitateko kide guztien urteko diru-sarrerak egiaztatzen dituzten agiriak (PFEZaren azken aitorpena edo diru-sarrera horiek egiaztatzeko beste agiri batzuk); araudi honi dagokionez, bizikidetza-unitatea osatuko dute eskatzailearen etxebizitzan bizi direnek: gurasoek, ezkontideak eta seme-alabek.

5. *Aurkezteko epea.*

Eskaerak aurkez daitezke deialdia argitaratzen denetik hasi eta deialdiko urte hori amaitu arte.

6. *Prozedura.*

— El/la cónyuge o pareja de hecho.

— Hijos e hijas.

— Progenitores.

— Hermanos y hermanas.

Los/las familiares solicitantes deberán estar empadronadas/as en Tolosa en el momento de la realización de las visitas y de la presentación de solicitudes.

3. *Requisitos.*

— La persona solicitante deberá estar empadronada en Tolosa.

— El centro penitenciario donde está ingresada la persona a visitar debe encontrarse fuera de Gipuzkoa.

— No disponer de recursos económicos suficientes. Los ingresos anuales totales de la unidad familiar del/la solicitante no podrán superar el importe mensual del Salario Mínimo Interprofesional del año en curso multiplicado por 4,17 por 14 mensualidades. Dicho límite máximo será ponderado en función del número de miembros de unidad familiar:

— Acreditar haber realizado las visitas al/la familiar preso/a.

4. *Presentación de las solicitudes: forma, plazo y publicidad.*

Quienes estén interesadas en percibir las ayudas económicas reguladas en la presente normativa, deberán cumplimentar y presentar una solicitud en el Servicio de Información y Registro del Ayuntamiento de Tolosa (Udate).

Tanto las bases como los impresos de la solicitud se podrán consultar en la página www.tolosa.eus.

En el impreso se deberá adjuntar la siguiente documentación:

a) Fotocopia del Documento Nacional de Identidad del/la solicitante.

b) Autorización de cesión de datos de carácter personal de todos los/las miembros de la unidad familiar. En el caso de los/las menores de edad la autorización la deberá firmar su representante legal.

c) Documento acreditativo del parentesco o relación con el preso o presa (libro de familia, certificado de pareja de hecho).

d) El certificado de convivencia que acredite la estancia real de los/las miembros de la unidad convivencial.

e) Documento acreditativo de la prisión en que se encuentra el familiar.

f) Declaración jurada en la que se haga constar, en su caso, la existencia de otras subvenciones (o solicitudes de subvención) concedidas (o formuladas) por (o ante) otras instituciones.

g) Justificantes de las visitas realizadas.

h) Número o código de la libreta o cuenta corriente de la entidad financiera donde realizar el pago de la ayuda.

i) Documentación en la que se haga constar los ingresos económicos anuales de todos los/las miembros de la unidad convivencial (última declaración del IRPF u otros documentos acreditativos de dichos ingresos), entendiéndose por unidad convivencial a efectos de la presente normativa, quienes conviven en el mismo domicilio del/la solicitante: padres y madres, cónyuge e hijos e hijas.

5. *Plazo de presentación.*

Las solicitudes se podrán presentar a partir de la publicación de la convocatoria hasta la finalización del año en curso.

6. *Procedimiento.*

EK\CV GAO-I-2017-05691

Diru-laguntzak emateko organo instrukzio-egile udal gizarte zerbitzuak izango dira. Organo instrukzio-egileak txosten bat egingo du, baldintzak betetzen direla egiaztatuko duena eta ebazpen-proposamena jasoko duena. Proposamen hori, gero, Gobernu Batzarrera bidaliko da.

*7. Balorazio-irizpideak.*

Diru-laguntza emateko, kontuan izango da espetxeraino dagoen distantzia (moduluen araberako sailkapena).

Espetxeen sailkapena.

1 modulua. Araba, Bizkaia, Nafarroako Foru Erkidegoa eta Kantabriako Autonomia Erkidegoa.

2 modulua. Aragoiko, Asturiasko, Errioxako, Madrileko eta Gaztela-Leongo Autonomia Erkidegoak.

3 modulua. Kataluniako, Gaztela-Mantxako, Valentziako, Murtziako eta Galiziako Autonomia Erkidegoak.

4 modulua. Extremadurako Autonomia Erkidegoa.

5 modulua. Andaluziako Autonomia Erkidegoa.

6 modulua. Kanariar Uharteak eta Balearrak, Ceuta eta Melilla hiriak eta Estatutik kanpo dauden espetxeak.

*8. Aurrekontua.*

Programa honen bidez emandako laguntzen zenbatekoa urteko deialdian zehaztuko da. Espetxea zer modulutan dagoen, haren arabera zehaztuko da eman beharreko kopurua.

*9. Ordaintzeko moduak eta epeak.*

Diru-laguntzak onartu eta gero, ordainketa bakar batean emango dira. Horretarako, egindako bidaien frogagiriak aurkeztu beharko dira.

*10. Laguntzen bateragarritasuna.*

Araudi honetan arautatutako laguntzak bateragarriak izango dira helburu berarekin beste administrazio publiko batzuek emandako diru-laguntza edo laguntzekin. Hala ere, ezin izango da gainditu bidaia-gastuen kostu osoa.

Baldin eta emandako diru-laguntzek bidaien kostu osoa gainditzen badute, soberan emandakoa itzuli egin beharko zaio Udalari.

El órgano instructor para la concesión de las ayudas serán los servicios sociales municipales. El órgano instructor emitirá un informe que acredite el cumplimiento de los requisitos y recoja la propuesta de resolución. La propuesta se enviará a la Junta de Gobierno Local.

*7. Criterios de valoración.*

La subvención se otorgará en función de la distancia al centro penitenciaria (clasificación en módulos).

Clasificación de centros penitenciarios.

Módulo 1. Araba, Bizkaia, Comunidad Foral de Navarra y Cantabria.

Módulo 2. Comunidades autónomas de Aragón, Asturias, La Rioja, Madrid y Castilla León.

Módulo 3. Comunidades Autónomas de Catalunya, Castilla-La Mancha, Valencia, Murcia y Galicia.

Módulo 4. Comunidad Autónoma de Extremadura.

Módulo 5. Comunidad Autónoma de Andalucía.

Módulo 6. Islas Canarias e Islas Baleares, ciudades de Ceuta y Melilla y Ubicaciones fuera del Estado.

*8. Presupuesto.*

El importe de las ayudas otorgadas a través del presente programa se determinará en la convocatoria anual. Las cuantías a conceder vendrán determinadas en función del módulo en el que esté catalogado el centro penitenciario.

*9. Abono o forma y plazos de pago.*

Las ayudas concedidas se harán efectivas en un pago único, tras la aceptación de la ayuda. Se deberán aportar documentos justificativos de los viajes realizados.

*10. Concurrencia de ayudas.*

Las ayudas previstas en la presente normativa serán compatibles con la obtención de cualquier tipo de subvención o ayuda que para el mismo fin puedan obtenerse de cualquier otra Administración Pública, sin que en ningún caso se pueda superar el coste total de los gastos de desplazamiento.

En el caso de que las subvenciones otorgadas superen el coste total, el exceso de la ayuda deberá ser reintegrado al Ayuntamiento.

EK\CV GAO-I-2017-05691